# 25 Azaroa
## Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Día Internacional Contra as Violencias Machistas

Día Internacional Contra las Violencias Machistas

Día Internacional Contra les Violències Masclistes

Día Internacional Escontra les Violencies Machistes

# INDARKERIA MATXISTEN AURREAN BEGIAK IREKI




# PATRIARKATU BAT
# ERAHILDAKO 1300 EMAKUMETIK GORA

LKN CGT

**Lanaren Konfederakunde Nagusia**

www.cgt-lkn.org @CGT rojoynegro.info

# Indarkeria Matxisten aurrean begiak ireki

Sistema kapitalista eta patriarkal honetan **egunero emakumeok jasaten dugun indarkeria** ugaria da, eta sarri hura **ikustezin bihurtzen eta normalizatu egiten da**. Gure isiltasunarekin ez gara konplizeak izango. Horregatik azaroaren 25ean, begiak ireki eta elkarrekin ahotsa altxatzen dugu **"Aski da!"** ozen esateko.

**Erahilketa matxistetaz aski da**, Indarkeria erlijiosoaz, ekonomikoaz...aski da; azken batetan **indarkeria patriarkalaz aski da**. Segurtasuna, errespetua eta berdintasuna gure bizitzako espazio guztietan aldarrikatzeko ozen hitz egiten dugu.

Gure gorputza eta gure sexualitatea ez dira etsaia suntsitzeko armak, ez esplotatzaileen eskuetan salerosketarako objektuak, ezta merkatuaren zerbitzurako ugalketa ontziak, ez banakako zein taldekako bortxatzaileen zein edozein erlijioren domeinurako lurralde.

**Bizitza kentzen digun, torturatzen eta zapaltzen**, bortxatzen gaituen eta gure gorputza objektu bihurtzen eta gu pobre egiten gaituen indarkeria, hementxe eta mundu osoan dago. Batzuetan modu mingarrian ikusgarri baina beste askotan gure ondoan bizi da eta **gizarteak onartu egiten du**, medikuntzan genero ikuspegia ukatzen denean bezela.

Kapitalismo heteropatriarkal honentzat, **justizia punitibistak babestuta dagoela dakien** eta indarkeria matxista ukatu, sexu aniztasuna jazarri, Trans pertsonen aurkako gorrotoa sustatu eta arrazista aldarrikatzen den **ultra eskuina izatea** "naturala" eta neurri batetan beharrezkoa da. Isil, sumisoak, obedienteak, hautsiak...nahi gaituzte. Baina elkartuago, sororitate eta aniztasun hadiagoarekin, independienteago eta borrokalariago aurkituko gaituzte.

Egungo lan merkatua ez da emakumeok jasaten dugun indarkeriaren ezezagun. **Soldata baxuenak ditugu**, enplegu prekarioenak, langabeziaren ilaretan gehiengoa gara eta erretiroa hartzerakoan **miseriazko pentsioak jasotzen ditugu**, gure lan bizitzan jasandako soldaten arrakala eta diskriminazioak betikotuz.

Bestalde, ordainsaririk gabeko lanak **eta bizitza zein sistema bera mantentzeko ezinbestekoak diren zaintzak** jasaten ditugunak gara.

**CGT-LKNtik Estatuaren indarkeriaren gaitza ikusgarri egiteko eta salatzeko antolatzen jarraituko gara.**

## Patriarkatu bat

## erahildako 1.300 emakumetik gora

**Lanaren Konfederakunde Nagusia**

LKN CGT